

Osasunaren Munduko Erakundearen arabera (OME), bizi-kalitatea gizabanako batek bizitzan duen posizioaz duen pertzepzioa da, bizi den kulturaren eta balio-sistemen testuinguruan, eta bere helburu, itxaropen, arau eta kezkei dagokienez. Honekin batera, gizabanako bakoitzaren alderdi ezberdinak kontuan izan behar dira bizi-kalitateaz aritzean, zehazki, eredu biopsikosozialak aztertzen dituenak.

[Datuen arabera](#), laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Hegoaldeko herrialdeetatik, bereziki Afrikatik eta Latinoamerikatik etorritako migrazio-joera esanguratsua hautematen hasi zen. Hala ere, aipatzekoa da prozesu hori azkartu egin dela azken urteotan.

Etorkinek zailtasunak izaten dituzte haien bizi-kalitatea bermatzerako orduan. Izan ere, hauek dira bizi dituzten oztopo nagusiak: komunikazioaren oztopoa, zailtasun ekonomikoak, aldaketa soziokulturalak, lana aurkitzeko zailtasunak, gizarte bazterketa eta familiaren zein gizartearen sostengu falta.

Azaldutakoarekin lotuta eta etorkinen ongizatea bermatze aldera, garrantzitsua da harreman sozialak sortzea harrera-komunitatearekin eta haien jatorrizko komunitateekin lotura ez galtzea. Hau lortzeko, funtsezkoa da kalitatezko aisialdiaz baliatzea, haien errealitatetik aldentzeko eta sostengu-talde bat sortu ahal izateko. Gaur egungo aisialdi taldeetan, faktore kulturalak ez direla kontuan hartzen somatzen dugu.

Errealitate honi erantzun bat emateko, “Munduko Ahotsak” izeneko elkarte sortuko dugu. Elkarte hau aisialdian oinarrituko da zerbitzu ezberdinak eskainiz. Espazio honetan, kultura ezberdinetako pertsonak gerturatuko dira haien esperientziak, bizipenak, ohiturak... transmititzeko, haien arteko elkar-trukea ahalbidetuz.

Espazio seguru honetan kulturartekotasunari aitortza ematea, tradizio eta ohituretan oinarrituta ahaldundutze kolektiboa bermatuz, bide honetan funtsezkoa izango da enpatia harreman interkulturalak sortzeko, hazkuntza pertsonala bultzatuz eta norbanakoaren mapa mentala landuz. Horretaz aparte, garrantzitsua izango da ikuspegi horizontal batetik bideratzea zerbitzua, elkar-zaintza oinarri izanda. Aipatutako azken hau, pertsona bakoitzak besteen esperientzei eta sentimenduei ematen dien arretan eta errespetuan ikusten da.

Ekologia eta jasangarritasunari dagokionez, materialaren erabilera, energia-kudeaketa eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea garrantzitsua da.

Laburbilduz, hauek dira gure balio nagusiak:

1. Kulturen aniztasuna: Jendarte berean kultur identitate ezberdina duten pertsonen bizikidetzaren proposatzen duen jendartearen antolaketarako eredu bat da, horretarako kulturen arteko errespetuan oinarritzen delarik.
2. Inklusioa: Aniztasunaren aldeko mugimendua da, hau da, pertsona guztiek, beraien baldintza fisiko, intelektual, sozial, kultural, emozional...lekua dute. Testuinguruaren eraldaketaz hitz egiten ari gara. Bai talde bai gizabanako bakoitzean ematen diren hezkuntza premia orori erantzutea eskatzen zaio. Hezkuntza praktiken aldatzeko, hezkuntza premia desberdinen garapenaz ari gara.
3. Intersektionalitatea: Aniztasunaren aitortzearen bidez, esku hartzean pertsona osotasunean hartuta eta testuinguru zehatzean kokatzen da. Generoa, klasea, adina, jatorria, herritar gisa dugun posizioa, funtzio aniztasuna, heziketa maila... bezalako kategoria sozial guztiak kontuan hartuta.
4. Elkar-zaintza: Zaintza kolektiboak berekin dakar taldeek kide bakoitzaren ongizatearen aldeko erantzukizun komunitarioa beren gain hartzea, eta erresilientzia pertsonala eta jasangarritasuna babesten dituen estrategia politikotzat hartzen da.